# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 5476

*AGINDUA, 2011ko urriaren 11koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Santurtziko (Bizkaia) «San José de Calasanz» Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematen duena.*

Titularitatea aldatzeko baimena eskatuaz, Santrutziko (Bizkaia) «San José de Calasanz» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularrak, Consuelo Cuadrado Lebratok, abiarazitako espedientea aztertu da.

Espediente horri Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua, eta alor honetan ezar daitekeen indarreko legeria aztertu ondoren, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Titulartasuna aldatzeko baimena ematen zaio «San José de Calasanz» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari. Ikastetxearen kodea: 48007405. Helbidea: Ospitaleko aldapa kalea 11, Santurtzi (Bizkaia). Consuelo Cuadrado Lebrato andrea izan da titularra. Aurrerantzean, «Calasanz Santurtzi, S.L.» entitatea izango da, eta horrenbestez, Consuelo Cuadrado Lebrato andrea aitortu zaion ikastetxeari dagozkion betebehar eta eskubide guztietan subrogatuta gelditu ko da.

2. artikulua.– Titulartasun aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da. Horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– 2011-2012 ikasturtetik aurrera ekarriko ditu ondorioak agindu honek.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 11.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.